

Euskal AEko Administrazioetako aurrekontu-saldo ez finantzarioa positiboa izan zen berriz 2016an, bederatzi urteren ondoren

Euskal AEko Administrazioetako diru-sarrerak %3,4 gehitu ziren 2016an, eta gastuak %1,4

Euskal AEko Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrera sendotuak -17.175 milioi euro 2016an- %3,4 gehitu ziren aurreko urtearen aldean, Eustaten arabera. Gastuetan, 16.664 milioi orotara, %1,4ko igoera izan zen. Halatan, 511 milioiko aldearekin gailendu zitzaizkien sarrerak gastuei.

1. Taula. Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2015-2016. Mila euro

	2015	2016	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.618.041	17.175.104	3,4
Eragiketa Arruntak	14.897.509	15.403.962	3,4
-Zerga Sarrerak	13.310.641	13.796.666	3,7
PFEZ	4.626.009	4.837.190	4,6
Sozietate-zerga	1.040.446	1.086.880	4,5
BEZ	4.997.576	5.165.460	3,4
Zerga Bereziak	1.374.078	1.419.275	3,3
Udal-zergak	710.464	718.063	1,1
Bestelako Zergak	562.068	569.797	1,4
-Bestelako sarrera arruntak	1.586.868	1.607.296	1,3
Kapital-eragiketak	189.365	269.707	42,4
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.086.874	15.673.669	3,9
Finantza-eragiketak	1.531.167	1.501.435	-1,9
GASTUAK GUZTIRA	16.438.340	16.663.715	1,4
Eragiketa Arruntak	13.777.475	14.037.343	1,9
Langileria Gastuak	3.500.838	3.562.855	1,8
Transferentzia Arruntak	4.776.155	4.882.673	2,2
Bestelako Gastu Arruntak	5.500.482	5.591.816	1,7
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.411.501	1.436.176	1,7
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.188.976	15.473.519	1,9
Finantza-eragiketak	1.249.364	1.190.196	-4,7
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.120.034	1.366.619	22,0
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-102.102	200.150	-

Iturria: Eustat. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak


Operazio ez finantzarioetan ere sarrerak gehiago hazi ziren gastuak baino, %3,9 lehenak eta %1,9 gastu ez finantzarioak. Hortaz, aurrekontu-saldo ez finantzarioa iragan zen izatetik 2015ean 102 milioi eurokoa izatera 2016an 200 milioikoa, zeina den lehendabiziko saldo positiboa 2007tik. Nolanahi den ere, Eusko Jaurlaritzaren saldoak segitzen du izaten 400 milioiko balio negatibo bat; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-administrazioenak, hala ere, positiboak dira.

Bestalde, operazio finantzarioengatik, hala diru-sarrerak nola gastuak murriztu egin ziren 2016an. Lehen kasuan, %1,9 (1.501 milioi euro orotara); bigarreanean, %4,7 (1.190 milioi euroko gastu finantzarioak orotara).

Diru-sarrera ez finantzarioen hazkuntza ohikoei zor zaie (%+3,4); sarrera guztien %91 izan ziren. Halaber, pisu txikikoak badira ere, kapital-eragiketengatik izaniko sarrerak %42,4 hazi ziren.

Zerga-sarrerak (sarrera guztien %80) %3,7 gehitu ziren 2016an eta denak izan ziren positiboak aurreko urtearen aldean. PFEZ eta BEZa nabarmentzen dira, bolumenean zein hazkunde-tasetan. BEZari doakionez, sarrerak %3,4 hazi ziren, eta zerga-sarrera guztien %37,4 izan ziren. Bestalde, PFEZ %4,6 hazi zen, eta guztira %35,1 izan zen. Hirugarren toki batean Zerga Bereziak daude, zerga-sarreren %10,3, zeinak %3,3 hazi ziren. Udal Zergak %1,1 gehitu ziren eta Beste Zergak %1,4. Hazkunde positiboak ere izan arren, txikiagoak.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreren banaketa. 2016 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

Ohiko beste sarrerak (besteak beste, tasak, transferentziak eta ondare-sarrerak), ohiko guztien %10,4, %1,3 gehitu ziren.

Gastu ez finantzario ohikoak %1,9 gehitu ziren. Ohiko horiek eduki zuten inportantzia handiena gastu ez finantzarioen hazkunderan. Langile-gastuak %1,8 gehitu ziren (gastu guztiaren %21,4); ohiko transferentziak %2,2 gehitu 2015aren aldean (gastu guztiaren %29,3); azkenik, ohiko beste gastuak %1,7 gehitu ziren.

Gastuak Inbertsioetan eta Kapital-transferentzietan %1,7 hazi ziren (+25 milioi) 2015aren aldean; guztiaren %8,6 dira.

Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-saldo negatiboa du berriro; positiboa, lurralde-administrazioek (Aldundiek eta Tokiko Entitateek). Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren saldo negatiboa 400 milioi eurokoa da, nahiz eta 84 milioi euroan hobera egin duen 2015ean izan zenaren aldean. Hiru lurraldeetan saldo positiboak daude: Araban eta Bizkaian hobera egin dute, 24,6 eta 179,6 milioi euroan hurrenez hurren, baina Gipuzkoakoak okerrera egin du 10,9 milioi euroan.

2. taula. Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2016. Mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURLAR.	ARABA/ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	15.403.962	9.111.756	2.499.098	7.832.008	4.863.893
GASTU ARRUNTAK	14.037.343	8.870.408	2.320.835	7.178.904	4.569.990
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.366.619	241.348	178.263	653.104	293.903
KAPITAL SARRERAK	269.707	174.156	22.021	45.834	66.846
KAPITAL GASTUAK	1.436.176	815.817	91.047	303.885	264.577
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	200.150	-400.313	109.237	395.053	96.172
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 16-12-31)	11.423.993	8.765.242	624.607	1.346.728	687.416

Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal AEko Administrazio Publikoetako zor bizia 11.423,9 milioi eurokoa izan zen 2016ko abenduaren 31n. 2016ko pasibo berriak 1.437,8 milioi izan ziren; amortizazioak, 960,4 milioi.

2016. urtearen amaieran, zor bizi osoaren %76,7 Eusko Jaurlaritzarena da; Bizkaiarena, %11,8; Gipuzkoarena, %6,0; Arabarena, gainerako %5,5a.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62